

4.- FUNTSEZKO BAZKIDEAK

Gure zerbitzuek, hainbat monitore eta aditu profesionalek gidatuta, pertsona desberdinen beharrak asetzeko helburuarekin funtzionatuko dute. Hainbat ikasketa motak dituzten pertsonak izango ditugu, esate baterako, nutrizionistak, kiroletan profesionalak diren irakasleak eta beste hainbat espezialista, gure bezeroei aholkularitza eta zerbitzu egokituak eskaintzeko.

Horrez gain, kirola egiteko tresna sinpleak erabiliko ditugu, hala nola, pilates egiteko mankuernak, pilotak, etb. Hauek erosten dizkiogun enpresa beste funtsezko bazkidea izango litzateke. Seguruenik, Decathlon-en bazkide bihurtuko gara, hor erosiko dugulako materialak. Bazkide eginda, onura batzuk daude, askotan deskontuak egiten dituztelako.



Gure sukalde-tailerrarentzako, beharrezkoa izango dugu monitore bat kontratatzea, sukaldearen funtzionamendu egokia bermatzeko eta ikastaroak behar bezala gidatzeko. Monitoreak sukaldearen gestioa, ikasleen jarraipena eta irakaskuntza praktikoak koordinatuko ditu. Halaber, sukaldea behar bezala hornitzeko, produktu eta material desberdinak erosi beharko ditugu, hala nola elikagai freskoak eta kalitatezkoak, baita sukaldeko tresnak eta materiala ere, tailerra funtzionala eta profesionala izan dadin.

Era berean, merchandising-ak parte garrantzitsua izango du gure estrategian. Hainbat produktu salduko ditugu, adibidez, sudaderak, kantineplorak eta kirolarekin lotutako bestelako produktuak, gure enpresaren logotipoarekin. Horrela, marka ezagutarazi eta bezeroekin lotura sendoagoa sortu nahi dugu. Hau aurrera eramateko, Amazonen produktuak erosiko ditugu merkea ateratzen delako, eta gero diseinua Zazzle enpresarekin egingo dugu. Ez dugu kantitate oso handietan erosiko, ez delako gure helburu nagusia.

Zazzle **amazon**



Plataforma digitalei dagokienez, gure funtsezko bazkidea webgunea eta aplikazioa sortzeko Órbitas enpresa izango da, eta haiekin lan egingo dugu hasieran. Ondoren, ez dugu izango hauen beharrik, plataforma online guztiak jadanik sortuak egongo direlako.



Gure aliantzak BPX eta Udala izango dira nagusiki. BPXek, materiala eta lokala utziko dizkigute diru truke. Bazkideak izango garenez, beraien gastuetan ere parte hartu beharko dugu.

Negozio txiki bat garenez, gizartearen ongizatea bilatzen duena, udalari laguntza eskatuko genioke, gure enpresa mistoa bihurtzeko aukera izateko. Horrela, gure prezioak merkatuan lehiakorragoak izango lirateke eta laguntza horri esker, aukera emango liguke gizarteari zerbitzu hobeagoak eskaintzeko. Aldi berean, enpresaren hazkundean eta iraunkortasunan lagunduko liguke.

